

BIDEBERRI MANKOMUNITATEKO ADIKZIOEN IV. Plana

2024 – 2028

***“Arriskuei aurre eginez, osasuna
eraikiz”***

Aurkibidea

1. SARRERA-AURKEZPENA
2. UDAL-ESKUMENAK
3. EUSKALDIKO ADIKZIOEN ESKARI ETA KONTSUMOAREN BILAKAERA
4. HELBURUAK
5. ESKU-HARTZE MAILAK: JARDUKETA-ILDOAK ETA EKINTZAK
6. KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA
7. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

1. SARRERA-AURKEZPENA

Bideberri Mankomunitatea, Antzuola, Leintz-Gatzaga eta Elgetako herriek osatzen dute eta gizarte zerbitzuak zuzendu, garatu eta bultzatzeko helburuarekin sortu zen.

Ondoren aurkezten den Bideberri Mankomunitateko Adikzioen IV Plan honen helburua, hurrengo bost urteetan gure herrietan adikzioen esparruan egingo den eskuhartzea zehaztea da.

Horretarako, gure herrietan bideratuko diren esku-hartzeak oinarri gisa hartuta eta lan ildo bat jarraituz, plangintza bat egin da eta honek barne hartzen dituen programa , proiektu eta horiek ebaluatzeko tresnak zehazten dira.

2. UDAL-ESKUMENAK

Adikzioen eta Droga Menpekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen arabera, 68. artikulua dio Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eskumenak honako hauek direla:

- a) Adikzioen udal-plana eta adikzioen inguruko programa eta jarduerak egin, garatu eta exekutatzea.
- b) Lurralde-eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendu-araubidea egitea.
- d) Dagokien lurralde-eremuan, adikzioen arloko sariak eta aintzat espenak kudeatzea.
- e) Lege honetan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea.
- f) Ikuskatu eta zehatzeko ahala erabiltzea, lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

Zeregin hauek burutzeko, udalek beren kabuz edo mankomunitateetan elkartuta jardun dezakete.

3. EUSKADIKO ADIKZIOEN ESKARI ETA KONTSUMOAREN BILAKAERA

Ondorengo datu eta grafikoak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko, 1/2016 Legean eta Euskadiko Adikzioen VIII. Planean jasota daude.

Europa mailan gertatzen den bezala, gizartean drogen erabileraren kaltegabetasun eta banalizazio pertzepzioa dago, alkoholaren eta cannabisaren kasuan batez ere.

Legezko substantziak (alkohola, tabakoa) dira bi sexuetako helduek gehien kontsumitzen dituztenak. Psikofarmakoen kontsumoak ere gora egin du, emakumeen artean batez ere, eta hori aztertu egin behar da, substantzia horietakoren batean adikziozko kontsumorik dagoen baloratzeko.

Bigarren hezkuntzako nerabeen artean patroia errepikatu egiten da, gehien kontsumitzen diren substantziak alkohola, edari energetikoak eta tabakoa baitira. Nesken artean psikofarmakoen kontsumoa handiagoa da, eta mutilen artean, berriz, cannabisarena.

TABAKOA:

Tabakoaren kontsumoaren beheranzko joera finkatu da eskuragarri dauden azken datuen arabera, Euskadiko erretzaileen kopuruak nabarmen egin zuen behera azken aldian, eta 2017an erregistratu ziren orain arte jasotako kontsumo-prebalentzia txikienak. Euskadiko kontsumo-datuak, gainera, Estatuko batez bestekoaren azpitik daude. Adin ertainetan izan ezik (35-44 urte), kontsumoa handiagoa da gizonen artean.

Nerabeen artean, 2021-22 ikasturteko azken datuetan oinarrituta, tabakoaren kontsumoak beheranzko joera izan du azken urteetan, 14-18 urteko biztanleen % 72k ez duela inoiz erre adierazi baitu.

Aurreko serieekin alderatuta, sexuaren arabera kontsumoaren prebalentzietan dauden aldeak murriztu egin dira, eta nesken egungo kontsumoa mutilena baino handiagoa da.

Alde negatibo gisa, hazkunde esanguratsua eta azkarra ikusten da nikotina aska dezaketen gailuen erabileran eta merkaturatzean, bai biztanleria orokorrean, bai adingabeen artean.

ALKOHOLA

Alkoholaren kontsumoak oso maila altuetan jarraitzen du, eta normalizazio eta onarpen maila handia du gizartean. Euskadin gehien kontsumitzen den substantzia psikoaktiboa da. 2017an, eginiko inkestan, EAEko biztanleen % 13ak adierazi zuen egunero kontsumitzen zuela alkohola, eta ehuneko hori % 19ra igotzen da gizonen kasuan.

Genero-ikuspegitik, helduen artean alkohol-kontsumoa handiagoa da gizonen artean, baina, nerabezaroan, mutilen eta nesken arteko kontsumoaren prebalentzia berdindu egiten da adierazle guztietan. Gehiegizko kontsumoari eta kontsumo arriskutsuari dagokionez, eskura dauden datuen arabera, biztanleria orokorrean gora egin du. Hala, 2017an, biztanleen % 20k baino gehiagok aitortu zuen azken urtean 1-12 aldiz mozkortu zela, eta gizonen kasuan, % 26k. Nerabezaroan, azken urtean izandako intoxikazio etilikoak aztertuta, % 33 dira gutxienez halako bat aitortu dutenak, eta ez dago alderik nesken eta mutilen artean.

Ondorio gisa, adierazi dezakegu, mutilen eta nesken artean alkoholaren eta tabakoaren kontsumo-mailak parekatzeko joera hautematen dela.

CANNABISA

Cannabisaren kontsumo esperimentalak gora egin du, serieko tasarik altuena erregistratuz. Kezkagarria da gizarteak substantzia horri buruz duen "kaltegabetasun" pertzepzioa. 2006-2012 aldian ikusitako beheranzko joeraren ondoren, cannabisaren kontsumo esperimentalaren prebalentziak gora egin duela ikusten da, 2017an bere maximo historikora iritsiz gizonetan zein emakumeetan. Ohiko kontsumoa ere pixka bat hazi da, eta eguneroko kontsumoak, berriz, egonkor jarraitu du, 2012arekin alderatuta.

Cannabisa kontsumitzen duen pertsonaren profil tipoa gizonezkoa, gaztea eta behe-mailako ikasketak dituen da, ondorengo adinetako kontsumoan nolabaiteko gorakada nabari den arren, agian cannabis kontsumitzen duten pertsonen zahartze progresiboak eragindakoa.

Kontsumoaren intentsitateari dagokionez, kontsumo handieneko segmentuan beheranzko joera ikusten da, baina modu esperimentalean kontsumitzen duten biztanleen ehuneko handiagoak konpentsatu egiten du hori.

Nabarmenezkoa da herritarrek cannabisaren kontsumoari buruz duten pertzepzioa; izan ere, herritarren erdiak baino gehiagok uste du hilean behin erretzeak arazo gutxi edo batere ez dakarrela eta kontsumoa legeztatzearen alde egongo litzateke, betiere adingabeei saltzea debekatuz gero.

Drogak eta Eskola Euskadi inkestaren azken datuen arabera, cannabisaren kontsumoa murriztu egin da Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean (14-18 urte) 2017-2022 aldian, bai mutilen artean, bai nesken artean. Kontsumoaren prebalentzia handitu egiten da adinean aurrera egin ahala.

LEGEZ KANPOKO BESTE DROGA BATZUK

Legez kanpoko gainerako drogen artean, kokaina eta anfetaminak dira gehien kontsumitzen direnak Euskadin gehien kontsumitzen den legez kanpoko substantzia, cannabisetik aparte, kokaina hautsa da: azken urtean, kontsumoaren prebalentzia % 1,3koa izan da; ondoren anfetaminak daude (% 1). Zaila da, biztanleriari buruzko inkesten bidez, heroina, kokaina basea (crack), arnastekoak eta antzeko beste substantzia batzuen azken kontsumoa kalkulatzea.

2012 eta 2017 artean, EAEko biztanleen artean, oro har, kontsumoa pixka bat igo zen: azken urtean, eta 2006az geroztik izandako beheranzko joera hautsi zen. Erabilera jai-giroei lotuta dago.

Helduen artean, azken urteko kontsumo-maiztasun handiena 35 eta 45 urte bitartekoen artean izan zen eta 2,5 aldiz handiagoa zen gizonen artean emakumeen artean baino eta erdi mailako posizio ekonomikoa dute.

Bigarren hezkuntzako ikasleen artean, legez kanpoko substantzia guztien kontsumoak behera egin duela ikusi da, eta gehien kontsumitzen direnak MDMA edo estasia, kokaina eta anfetaminak dira, mutilen artean batez ere. Bestalde, badirudi nesken artean estasiaren kontsumoa zertxobait igo dela.

JOKOA, BIDEOJOKO ETA TEKNOLOGI BERRIAK

Jokoaren, bideo-jokoen eta teknologia berrien gehiegizko erabilerak gora egin du.

Jokoa ez dago hain hedatua gazteen artean (18-30urte), %52k ez du inoiz jokatu edo apusturik egin. Jokoa gizonen artean da nagusi, emakumeek baino ia bi aldiz gehiago jokatzen baitute, maizago eta gastu-maila handiagoarekin.

Bideo-jokoen, mugikorraren, Interneten eta sare sozialen gehiegizko erabilerak gora egin du Euskadin modu kezagarrian, nerabeen eta gazteen artean batez ere. Hala, teknologiak nerabezaroan duen eraginari buruz Unicefek 2021ean egindako ikerketaren arabera, Euskadiko 3 nerabetik batek Interneten erabilera problematikoa egiten du, eta 5etik 1ek bideo-jokoei lotutako mendekotasun mailaren bat du. Ondorioz, osasun-arloko profesionalen arabera, ugaritu egin dira teknologien gehiegizko erabilerarekin erlazionatutako nahasmenduak eta laguntza- eta tratamendu-eskariak.

Bigarren hezkuntzako ikasleen kolektiboan pantailetan emandako ordu kopuruari buruzko azken datuen arabera (2021), ikasleen ia %40ak 3-4 ordu baino gehiago ematen ditu mugikorrean eta Interneten lan egunetan eta %50ak baino gehiagok asteburuetan.

Euskadiko Jokoaren Behatokiak emandako datuen arabera, jokoak jardunbide hedatua da Euskadin, eta biztanleriaren % 70ek baino gehiagok aitortu du 2020an noizbait jokatu duela apustu-jokoren batean eta portzentaiak oso antzekoak dira gizonen eta emakumeen artean. Noizbait jokatu dutela adierazi duten pertsonen artean, % 2,5ek joko problematikoren bat du, jokoarekin arazoren bat izan duten pertsonen %2,9a gizonezkoa da eta % 1,4a emakumezkoa. Ehuneko txikiak badira ere, balio absolutuetan 18.000 euskal herritar dira jokoarekin arazoren bat dutenak.

Ondorio gisa adierazi genezake, online jokoari lotutako maiztasuna eta gastua nabarmen handitu egin direla 2015-2019 aldian eta bideo-jokoen, Interneten eta sare sozialen gehiegizko erabilerak eta horien ondoriozko nahasmenduek gora egin dutela. Aipatzekoa, Covid-19aren pandemiak adikzio-kontsumo eta portaeretan izan zuen eraginak hazkunde nabarmena ekarri zuen sare sozialen eta bideo-jokoen erabileran.

Genero ikuspegiari erreparatuz, kontutan hartzekoa da emakume eta gizonen joera ezberdina:

Duela 10-15 urte emakumeek gizonen baino kontsumo patroia moderatuagoak erakutsi izan dituzten arren ia substantzia eta adin tarte guztietan, azken garaian joera kezkagarria hautematen da, alkohol eta tabako kontsumoak parekatzen ari baitira bi sexuen artean.

Egin diren ikerketen datuek diotenez, tabakoaren kontsumoaren beheranzko joera egon den arren azken urteetan nesken egungo tabakoaren kontsumoa mutilena baino handiagoa dela adierazten dute.

Alkoholaren kasuan, helduen artean alkohol-kontsumoa handiagoa da gizonen artean, baina, nerabezaroan, mutilen eta nesken arteko kontsumoaren prebalentzia berdindu egiten da adierazle guztietan.

Legez kanpoko gainerako drogetan, helduen artean gizonen kontsumoa 2,5 aldiz handiagoa da emakumeena baino. Gazteen artean nahiz eta legez kanpoko substantzia guztien kontsumoa behera egin duen, badirudi nesken artean estasiaren kontsumoa zertxobait igo dela.


Bestalde badirudi, emakumeak gehiago erlazionatzen direla hain agerikoak ez diren fenomenoekin, adibidez, psikofarmakoen kontsumoarekin.

Hau dela eta, beharrezkoa da genero ikuspegia sartzea adikzioen alorreko jarduera guztietan, emakumeen beharretara eta portaera bereizgarrietara egokitutako programak eta esku hartzeak garatzea, bai prebentzioaren ikuspegitik, bai asistentziaren ikuspegitik ere.

Jarraian, adikzioen ohiko/egungo kontsumoen datuak eranstean dira:

Biztanleria orokorrak eta bigarren hezkuntzako ikasleek gehien kontsumitzen dituzten substantziak


Azken 12 hilabeteetako droga-kontsumoaren prebalentzia, sexuaren arabera, biztanleria orokorra, 2017



Iturria: Euskadiko adikzioei buruzko inkesta (2017).

Jokoa


Biztanleria orokorraren prebalentzia 2017



* NODS eskalaren arabera joko problematikoa (Nord DSM-IV Screen for Gambling Problems).

Iturria: 2020ko Jokoaaren Euskal Behatokia.


Online jokoa egindako gastuaren bilakaera, M€



Iturria: 2020ko Jokoaaren Euskal Behatokia

Teknologien gehiegizko erabilera

IKTen* prebalentzia eta erabilera problematikoa 11-18 urteko nerabeetan, 2021



4. HELBURUAK

Bideberri Mankomunitatea osatzen duten hiru herrien berezitasunak kontutan izanda, Adikzioen IV. Planean lantzeko lehentasunezko bideak honakoak direla uste dugu: Substantzien kontsumoak eta adikziozko jokabideek eragindako arriskuei buruz gizarte eta jokabide osasungarriagoak sustatzea.

Helburu orokorrak:

Bideberri Mankomunitateko kolektibo guztien eskura dagoen prebentzioan aritzeko egitura osatzea, honako hau eginda:

- **Familia** mailan partehartzea eta heziketaren trebatzea hobetzera zuzendutako jarduerak bultzatu.
- **Hezkuntza zentroetan** prebentzioa finkatu, bermatu eta hedatu.
- **Aisialdi guneetan** prebentzioa sustatu.

5. ESKU-HARTZE MAILAK: JARDUKETA-ILDOAK ETA EKINTZAK

Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumoak eta adikzioa jokabideek eragindako arriskuak prebenitzeko, gizarte osasungarriagoa eta sentibilizatuagoa lortzeko ikuspegiarekin (pertsonek osasunean, euren familietan eta orokorrean komunitatean), landu beharreko lehentasunezko helburuak honakoak dira:

A Helburua: Portaera Osasungarriak sustatuko dituzten eta adikzioa sortzen duten substantzien kontsumoa eta jokabideak desnormalizatzen lagunduko duten ingurumenak aktibatzea:

Osasunaren sustapena bultzatu eta bizitzeko ingurune, jarrera eta estilo osasungarriak bultzatzea. Baita babeserako faktoreak indartu, adikzioen eragina eta prebalentzia murriztu eta horien aurrekari diren arrisku faktoreak eta jokabideak gutxitu.

B Helburua: Osasuna eta prebentzioa sustatzeko programak indartzea eta hobetzea:

Osasuna sustatu eta adikzioak prebenitzeko programak bizitzaren ibilbidearen ikuspegitik indartu, jokabideetan eta erabakiak hartzeko eragina duten faktoreetan indarra jarri beharra dago. Prebentzioko jarduerak ildoak alor ezberdinetan landu behar dira; familia eremuan, hezkuntza eremuan, komunitatean...

C Helburua: Gizarteratzeko tratamendu, asistentzia eta laguntza zerbitzuak indartzea eta hobetzea.

Adikzioak dituzten pertsonentzako arreta modu integralean eta pertsona bakoitzaren berezitasunak errespetatuz bermatu nahi da, prestazio publikoetan berdintasunerako sarbidea ziurtatuz. Euskadiko osasun eta zerbitzu sarearen bitartez, adikzioen fenomenoak eragiten dituen laguntza beharrei erantzun jarraitua, koordinatua eta eraginkorra ematea.

D Helburua: Adikzioen arloko ezagutza eta berrikuntza garatzea eta zabaltzea

Adikzioen eta horien zergatien eta ondorioen alorreko ikerketan, hedapenean eta ezagutzan aurrera egitea bilatzen du, eta baita alor horretan planteatzen diren programen eta ekimenen ebaluazioan ere; Besteak beste, adikzioetan dauden genero eta gizarte mailako desberdintasunetan, patologia dualean edo psikofarmakoen kontsumoa areagotzearen arrazoietan.

E Helburua: Adikzio planaren ezarpenean sektore arteko ekintza eraginkorragoa finkatzea.

Adikzioen alorrean inplikaturik dauden eragileen sistemaren funtzionamendu koordinatuan, elkarlanean, eraginkorrean eta efizientean aurrera egiten jarraitzea bilatzen du, adikzioekin lotutako eragile guztien arteko sareko lana bultzatzea. Bestalde, fustezkotzat jotzen da hirugarren sektorearekin sareko lana indartzea, funtsezko eragileak bait dira programak diseinatzeko eta abian jartzeko.

5.1. Ekintzen hedapena helburu eta jarduketa-ildo bakoitzeko:

Portaera Osasungarriak sustatuko dituzten eta adikzioa sortzen duten substantzien kontsumoa eta jokabideak desnormalizatzen lagunduko duten ingurumenak aktibatzea

Ingurune osasungarriak garatzeko egiturazko neurriak bultzatzea. Eskaintzaren murrizketarako eskuhartzeak indartzea, inplikaturako eragileen arteko koordinazio hobearen bidez. Kontsumoaren aurrean gizartean dagoen tolerantzia murriztea eta indarrean dagoen arautegia modu eraginkorrean bultzatzea.

Helburu espezifikoak

- Legez kanpoko drogen merkataritza kontrola erraztea eta horien eskaintza eta presentzia murriztea.
- Edari alkoholadun, tabakoaren eta adikzioak sor ditzaketen legezko beste substantzia batzuen sustapen, publizitate eta salmentari buruz indarrean dagoen araudia bete eragitea.
- Adingabekoen edari alkoholadun eta tabakoaren kontsumoa kontrolatzea.
- Jokoaren eta teknologia digitalekin erlazionaturako eskaintza murrizteko eta moderazio eta erantzukizun balioak sartzeko jarduerak eskaintzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Alkoholaren, tabakoaren eta cannabisaren kontsumoa desnormalizatzerako bideraturako ekintzak garatzea.
- Aisialdiko aukera osasungarriak sustatzea eta horien erabilera erraztea.
- Legezko eta legez kanpoko drogei buruzko autonomiako eta udaleko araudia zabaltzea.
- Alkoholadun edarien salmentari buruzko arauak betetzeko beharrianaz saltzaileak kontzientziatzea.

Eskaintzaren kontrolak ez dakartza berekin neurri polizialak eta zigortzaileak bakarrik, prebentzio neurriak eta hezitzaileak ere badakartza.

5.2. : Ekintzen hedapena helburu eta jarduketa-ildo bakoitzeko

Osasuna eta prebentzioa sustatzeko programak indartzea eta hobetzea:

Hautzaroan, nerabezaro -gaztaroan eta helduaroan; hau da adin guztietan, osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea.

- **Familia eremua**

Familia heziketa esparru nagusi eta oinarritzkoa da. Bertan gurasoek eta tutoreek ohitura osasungarri eta seguruak indartu behar dituzte. Familia da hezkuntza eta gizarteratze-entitate garrantzitsuena, adin goiztiarrenetatik pertsonengan duen eragina dela eta.

Gaur egun, gurasotasun positiboaren printzipioa da familiekiko esku-hartzearen paradigma berria. Printzipio horren arabera, gurasoen aldetik guraso-gaitasun positiboak garatu behar dira seme-alabekiko. Hauen jokabiderako mugak ezartzen dituzten balioetan oinarritutako hezkuntza garatu behar da (afektibitate balioak sendotuz, ingurune egituratuak indartuz, eskolako ikasketak bultzatuz eta estimulatuz eta seme- alaben balioa aintzatatik).

Helburu espezifikokoak

- Heziketa prozesuaren bidez familia mailan babesteko faktoreak bultzatzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea.
- Adikzioen prebentzioan lan egiteko Bideberri Mankomunitatean bizi diren 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiei babesa ematea.
- Gurasoak sentsibilizatu, informatu, formatu eta aholkatzeko parte-hartze berriak sortzea eta gehitzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Programa, hitzaldi, tailer, topaketa, ikastaro, ihardunaldi, guraso-eskola, eta abar antolatzea gurasoak orientatzeko eta aholkatzeko.
- Orientazio eta informazio zerbitzua. Adikzioekin lotutako orientazio zerbitzua honako kasuetan eskaintzen da: adingabekoen artean droga kontsumoak direla eta kezka dagoenean eta tratamendu zentroei buruzko eta gaiarekin lotutako edozein egoera edo kasuri buruzko informazioa emateko.
- Familien heziketa lana bultzatu, gurasoen heziketa lanari babesa eta laguntza eskainiz.
- Gurasoei material informatzaile eta didaktikoa helarazi.
- Familiaren barnean arrisku adierazleak aurkitzeko programak aurrera eramanez

- **Hezkuntza eremuan**

Eskola, familiarekin batera, pertsonen heziketa formazioan eragin handieneko esparrua da. Beraz, adikzioen aurrean babesteko faktoreak bultzatzeko eremu ezin hobe da.

Pertsonen gaitasunak eraikitzeko, batez ere garapenaren etaparik goiztiarrenetan, beharrezkoa da hezkuntza sistemaren eginbeharra. Ezinbestekoa da adingabeei zuzendutako neurriak hartzea, ikasleak substantzia batekiko adikzio bat edo jokabide-adikzio bat izateko zer arrisku dagoen kontzientzia izan dezan eta adikzio horiei aurre egiteko ahalmenak indartu ditzan.

Helburu espezifikoak

- Bideberri Mankomunitateko eskoletan osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzeko programak eta jarduerak ezartzea, gaitasun emozionalak eta bizitzarako trebetasunak garatzeko genero ikuspegia txertatuz programak eginez.
- Substantzia desberdinak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.
- 18 urtetik beherakoen artean kontsumoak gutxitzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Lehen Hezkuntzako 5º eta 6º mailako ikasleei zuzendutako formazio tailerrak egitea.
- Gizarte-trebetasun, talde-presio, autoestimua, baloreen heziketa, eta abarren erabileraren formazioa.
- Irakasleentzako eta beste profesional batzuentzako material informatzaile-didaktikoa helaraztea.
- Eskolaren bidez arrisku kasuak antzematea.
- Jarduerak, proiektuak eta programak martxan jartzeko irakasle taldeei orientazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea.

- ***Komunitatean***

Komunitate inguruneari dagokionez, nabaria da pertsonarengandik gertuen dauden inguruneen balio sustatzailea, horregatik da garrantzitsua ingurune guzti horien inplikazioa eta partehartzea bilatzea esku-hartzeetan.

Gazte eta nerabeentzat bereziki, eta orokorrean biztanle guztiontzat, sozializazioa da tarte libreetakoa uneetan nahi duguna eta baita beharrezkoa ere. Gainera gazteentzat sarritan helduengandik eta hauek ezartzen dituzten mugetatik urruntzeko eremua da.

Beste alde batetik, testuinguru horretako pertsonen arteko harremanetan pertsona batzuek beste zenbait pertsonak baino eragin handiagoa dute eta horrek menpekotasun harremanak sor ditzake, eta hori adikzioekin modu zuzenean lotuta dago.

Helburu espezifikoak

- 18 urtetik beherako gazteekin ekimenak garatzen dituzten kultura, kirol eta aisialdirako elkarteei laguntzea, babesteko faktore indartzaile bezala.
- Prebentziorako alorrean aisialdi eremuetako begiraleen formazioa areagotzea.
- Aisiarako eremuetan adikzioekin lotutako arrisku murrizketa.

Garatu beharreko ekintzak

- Jai egunetan alkohola eta drogen gehiegizko kontsumoaren prebentziorako proiektuak.
- Substantzien kontsumoarekin erlazionatutako arriskuaren pertzepzioa areagotzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak garatzea.
- Ume, nerabe eta gazteei zuzendutako aisia osasungarriko jarduerak eskaintzea.
- Jokoaren eta teknologiaren erabilera desegokiari lotutako arriskuak murrizteko prebentzio programak bultzatzea.

5.3. Ekintzen hedapena helburu eta jarduketa-ildo bakoitzeko:

Gizarteratzeko tratamendu, asistentzia eta laguntza zerbitzuak indartzea eta hobetzea

Droga kontsumoaren eta joko eta teknologia berrien erabilera desegokiaren ondorioetarako bat adikzioa da. Adikzioek, osasun arazoak eta gaixotasunak garatzea ekarri dezake, bai fisikoki, bai psikologikoki eta baita gizarte mailan ere. Guzti horrek, laguntza behar duen egoera batera eraman gaitzake.

Gizarteratzeaz ari garenean, herritar arduratsu eta autonomo bezala pertsona bat bere ohiko inguruan sartzeko prozesuaz ari gara. Prozesuan gizarte integrazioaren, norbere gaitasunen berreskuratzea, zein, adikzioengatik arazoak dituzten pertsonak onartzeko beharrezkoak diren gizarte-aldaketak sartzen dira.

Helburu espezifikoak

- Adikzioei aurre egiteko tartean dauden Bideberri Mankomunitateko instituzio eta erakundeak aritzeko eremu sozio-sanitarioa eratzea eta zehaztea, era koordinatuan parte har dezaten.
- Gizarte kide bezala adikzioengatik arazoak dituzten pertsonen (prozesu terapeutikoan egon zein ez egon) gizarteratzea errazteko programak bultzatzea eta hauen estigma murriztea.

- Jokoarekin eta teknologia gehiegizko erabilerarekin lotutako jokabide problematikoak dituzten pertsonen arreta integrala indartzea.
- Egoera ahulean dauden kolektiboenganako (gizarte-baztertze handiko egoeran dauden pertsonak) lehentasunezko ekintzak garatzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Pertsona guztiei adikzioen arreta unibertsaleko sarbidea bermatzea eskuragarri egonda informazioa.
- Gizarte-zerbitzu eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa ezartzea
- Baliabideak ezagutzeko bidea erraztea eta beharrezkoa izango balitz baliabide berriak sortzea.
- Gizarte-laguntza eta laguntza ekonomikoak eskuratzeko eskubidea erraztea eta bermatzea.
- Teknologia gehiegi erabiltzearen ondorioz arazoak edo nahasmenduak dituzten pertsonen detekzio goiztiarreko eta tratamendurako programak garatzea.

5.4. Ekintzen hedapena helburu eta jarduketa-ildo bakoitzeko:

Adikzioen arloko ezagutza eta berrikuntza garatzea eta zabaltzea

Adikzioen alorrean egiten diren esku-hartzeen ikuspegi zuzena, eguneratua eta eraginkorra bermatzeko beharrezkoa da ezagutza modu egokian kudeatzea. Adikzioen eta horien zergatien eta ondorioen alorreko ikerketa, hedapena eta ezagutza beharrezkoak dira eta baita programen eta ekimenen ebaluazioa ere. Adikzioen alorreko profesionalei zuzendutako prestakuntza jarduerak indartu behar dira

Helburu espezifikoak

- Adikzioen alorreko ezagutzaren garapena bultzatzea eta ikerketa eta berrikuntza sustatzea
- Adikzioen alorreko programen ebaluazio sistematika garatzea eta ezartzea.
- Profesionalen aholkularitza eta trebakuntza jarduerak bultzatzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Lankidetzaren egituratua izatea adikzioen ikerketan eta ezagutzean lan egiten duten erakundeekin.
- Gauzatutako programen jarraipen eta ebaluazio jarraibideak garatzea, genero ikuspegia kontutan izanda.

5.5. Ekintzen hedapena helburu eta jarduketa-ildo bakoitzeko:

Adikzio planaren ezarpenean sektore arteko ekintza eraginkorragoa finkatzea.

Adikzioen fenomenoak emateko hamaika arrazoi daudenez ezin izango da inoiz eten bide bakarretik aurre eginda. Beraz, koordinazioa ezinbesteko osagai bezala ulertzen da fenomenoari aurre egiteko modu integratuan, jarduteko estrategia desberdinak erabiliz, erakundeen arteko laguntzaz eta gizarte ekimenaren babesaz.

Helburu espezifikoak

- Instituzioak, erakundeak eta talde teknikoak garatutako ekintzen koherentzia eta laguntza erraztea.
- Toki erakundeekin eta hirugarren sektorearekin sareko lana sendotzea.
- Egindako programen antolaketa, diseinu, formulazio, gestio eta ebaluazioa hobetzeko estrategiak abian jartzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Jarduteko arlo desberdinak koordinatzea (prebentzioa, eskaintzaren kontrola, laguntza, gizarteratzea).
- Profesionalen arteko topaguneak sortzea, ezagutza eta esperientzia trukatzeko.
- Prozesuan parte hartzen duten eragileak koordinatzea, ikuspegi soziosanitario bat ezartzea.
- Baliabideen erabilera optimizatzea, koordinazio eta partaidetza organoen bidez.

Sektore arteko lana eta koordinazio lana beharrezkoa da adikzioen gaia modu transbertzalean lantzeko. Plan Lokala, koordinazioa eta harremanak ahalbidetuko duen tresna da.

6. KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA

Adikzioen eta Droga mendekotasunaren gainerako arreta integralari buruzko 1/2016 legearen arabera, Eusko jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta adikzioen zuzendaritzari dagokio Eusko Jaurlaritzaren jarduketa zuzentzea, bultzatzea eta koordinatzea, Euskadiko Adikzioen plana aplikatuz.

Zeharkakoa denez, planak erakundeen arteko inplikazioa eta koordinazioa eskatzen du, bai Eusko jaurlaritzako sailen aldetik, bai Foru Aldundien eta Udalaren aldetik.

Era berean, planak hirugarren sektoreko eta eremu pribatuko beste erakunde batzuen lankidetzara estua behar du, bai jarduketan hedapenean, bai sustapen eta prebentzio arloan, eskaintzaren kontrolean, laguntzan eta gizarteratzean.

Bideberri Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak elkarlanean arituko dira, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailarekin, Osasun zentroekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta hirugarren sektoreko erakunde eta gizarte eragileekin Euskadiko Adikzioen VIII. Planaren garapenean jarraipena egiteko.

7. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

Ebaluazioa landu beharreko arlo guztien estrategia transbertsala denez, programak eta jarduerak planifikatzeko, proposatutako helburuak bete diren edo ez jakiteko eta etorkizunean proiektuak egiteko erabakiak hartzen laguntzeko erabiliko dugu.

Hau dela eta, Adikzioen IV. Plan honetan, Bideberri Mankomunitateak 2024-2028 urte bitartean egingo duen esku-hartzea zehaztu bada ere, urtero planaren ebaluazioa egingo da izan daitezkeen behar berrietara egokitzeko. Balorazio horretan, besteak beste, honakoak aztertuko dira:

- Planean zehaztuta dauden programak eta proiektuak aurrera eramaten ari diren edo ez baloratzea, ezezkoa bada zein den arrazoia aztertu.
- Burutu diren programa eta proiektuetan zehaztutako helburuak lortu diren edo ez baloratzea eta emaitzen ebaluazioa egitea.
- Helburuei, ekintzei, proiektuei edota programei dagokienez hauek dagoenetan mantentzea, aldaketak egitea, zerbait kentzea edo gehitzea komenigarria den edo ez baloratzea.